

noaua



"OSO-OSO POZIK NAGO GIPIZKOA BERTSOTAN TXAPELKETAN BIZITZEN ARI NAIZEN GUZTIAREKIN"

Uxue Fernandez bertsolaria bigarren itzulirako sailkatu da / 06-07

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Usurbil FT-ko kadete neskek gogotik ospatu zuten maila igoera / 03



NOAUA

Erraustegia geratu eta ixteko eskaera planta atariraino eramán zuten / 10



NOAUA

Sagardo Egunean ohi baino goizago sumatu zen jendearen joan-etorria / 12



NOAUA

Hitzarmena eguneratzeko mobilizaziotan dira Matiako langileak / 18

EHZ 

HEMENDIKI!

EKAINAK 28.29.30 JUN
ARBERATZE-ZILHEKOA

NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozkatuko ditugu

EHZ 

HEMENDIKI!

EKAINAK 28.29.30 JUN
ARBERATZE-ZILHEKOA



noaUA

jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaUA

www.noaUA.euS



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAKO
AUKERARIK
HOBERENA

ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96



Usurbil FT-ko kadete neskek ere mailaz igo dira

Maila igoera ospatzeko baliatu zuten Usurbil FT-ko kadete neskek, iragan ostegunean Haranen jokaturiko partida.

Añorga KKE B taldekoen aurka jokaturako partida amaitu eta berehala hasi zituzten ospakizunak Usurbil FT-ko kadete neskek. Izan ere, badira zenbait egun mailaz igo zirenetik. Igoera irudian duzuen moduan ospatu zuten Haranen, senide, lagun eta herrikideekin batera.

Dantzan, jauzika ospatu zuten maila igoera. Udako etenaldiaren ostean, maila berrian lehiatuko dira. Zorionak!



Añorga KKE B taldearen aurkako norgehiagoka eta gero ospatu zuten maila igoera.

Garbigune mugikorra, Txokoalden

Maiatzaren 23tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarikgabe. Maiatzaren 30ean garbigune hau Santuenera eramango dute.

Vachoca tailerraren azken saioa ostiral honetan izango da

Etxea gaitzat duen sormen artistikorako tailerraren azken saioa ostiralean, maiatzaren 24an, 17:30-19:00 artean Po-txoenean, herrikide ororentzat. 15 laguntzako toki egongo den saiorako izena aurrez eman beharko da ganbara.sormen-tailerra@gmail.com bidez.

1964an jaiotako bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatu dute; maiatzaren 15era arte 647 458 997 telefono zenbakian (Mari Jose). Telefono zenbaki horretara deituta jaso ahalko dira ordainketa nola egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

Ordu aldaketa maiatzeko kantu-jiran

Hileroko kantu-jiran aldaketa nabarmen bat izango da oraingoan. Eguerdian ez, arratsalderako iragarri dute. Hilaren 25ean herrian barrena egingo duten bira 19:00etan abiatuko dute Mikel Laboa plazatik. Udako etenaldi aurreko azken izango da.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

‘Tasio’: Zaharberritua eta apaindua

Montxo Armandarizen ‘Tasio’ filma euskal zinemak sortu duen pelikularik ederrenetakoa izango da. Duela 40 urte ikusi nuen pantailahandian; gerostik beste hiruzpalau aldiz ere bai telebistan. Egun hauetan asko mintzatzen da zinema obra horretaz, izan ere, 1984an Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu zen Tasio filma, zaharberritu egin du Euskadiko Filmmategiak. Jantzi berri honekin, Cannesko Festibalean emango dute estreinakoz eta Montxo Armandariz bera ere han izango da.

Frantziako zinemaldiak film klasikoei eskaintzen dien atalean proiektatua izango da maiatz honetan. “Cannes Classics” sailean botako dituzte, besteak beste, Abel Ganceren “Napoleon” pelikula kolosala, Charles Vidorren “Gilda” ospetsua eta Jacques Demyren “Les parapluies de Cherbourg” (Cherbourgo aterkiak). Azken bi hauek ikusita dauzkat. Zein baino zein ederragoak. Pentsa ze erakusleihogure Tasiorentzat! Zinemaren historian egin diren pelikula handien parekoa. Hemen ez dago oraindik bere komertzializazioa finkaturik; Frantziar datorren urtean zabalduko dute zinema guztietara. Eta Cannesko saioaren ostean, Donostiako Zinemaldian emango dute.

Pelikularen argumentua oso sinplea da. Tasio Urbasa men-



Tasio 1984ko filma da.

dilerroko Nafarroako herri txiki batean bizi zen. Zortzi urterekin lanean hasi eta 14rekin ikazkin bihurtu zen bere aita bezala. Heldua bihurtu zenean, ikazkintzari ezkutuko ehiza gehitu zion. Nahiz eta inguruko askok lan segurua baten bila alde egiten zuten hirira, Tasio nahiago zuen bere askatasuna mantendu eta mendian bizi. Pelikula pertsonaia erreal batean oinarritu zen: Anastasio Ochoa Ruizengan (Tasio), ikazkin eta ezkutuko ehiztaria. 1989an hil zen.

Montxo Armandarizen esanetan, “ezkutuko askatasunari buruzko pelikula da, arauen eta konbentzioen kontra da-

**"ZINEMAN
ADITU DIREN
ASKOREN USTEZ,
OPERA PRIMA HAU
DA AGIAN MONTXO
ARMENDARIZEN
FILMIK EDERRENA"**

goen isileko libertatearen gaineko filma. Gehien interesatzen zitzaidana zen Tasiok zuen duintasuna eta harrotasuna gizartearen aurrean, nahiz eta atzerakoi itxura ematen zuen. Tasiok defendatzen zuen gizakiak naturarekin behar duen harmonia. 40 urte pasata konturatzen naiz atzera egin dugula bi esparrutan batez ere: ingurumena izugarri handatu da: basoak suntsitu, zuhaitzak moztu. Giza espeziearen eta naturaren arteko oreka kolokan jarri dugu eta neoliberalismoarekin dena merkatu bihurtu. Tasiok hau ikusi izan balu, ez dakit zer pentsatuko zukeen”.

Hamabi urte nituen Urbasara lehen aldiz joan nintzen: Altsasuko kaputxinoen ikastetxetik irten eta egun bikaina pasatzen genuen mendian. Orduan ezagutu nuen Urbasako mendilerroaren edertasun berdea. Montxo Armendarizek dotorezia horixe atzematen du bere irudiek. Zinemaren aditu diren askoren ustez, opera prima hau da agian bere filmik ederrera. Nire iritziz, “Secretos del corazón” Tasio bezain bikaina da.

“Tasiok zentzu handia hartzen du gaur egun, kontsumotik eta materialarekiko menpekotasunetik jaitsarazten laguntzen digu. Nolabait, engainatuta bizi garela erakusten du”. Ea Cannesko festibalean arrakasta handia izaten duen. Biziki opa diot.

Jaietako deialdietan parte hartzeko azken egunak

Santixabelei begira Jai Bartzordeak iragarritako bi deialdiotan parte hartzeko epea maiatzaren 24an itxiko dute.

Txupinaren jaurtizailea

Batetik, txupinazoa nork jaurti proposatzeko aukera duzue kultura@usurbil.eus bidez edota udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean jarriak dituzten kutxetan.

Diseinu lehiaketa

Bestetik, festetako ekitaldien berri emango digun egitarauaren diseinu lehiaketara lanak aurkezteko epea ere hilaren 24an itxiko dute. 500 euroko saria eskuratuko du irabazleak. Oinarrien berri bideotatik jaso dezakezue:


- usurbilkultura.eus
- 943 371 999.

15 langabetu gutxiago apirilean

211tik 196ra murriztu da langabetu kopurua martxotik apirilera, Estatuko Enplegu Zerbitzuak kaleraturiko azken datuen arabera. Lanik gabeko 15 herrikide gutxiago zeuden iragan hilabetearen udalerrin honetan. Langabetu kopuruaren murrizketa orokorra izan zen: 53 gutxiago Buruntzaldean eta 576 gutxiago Gipuzkoan.

Kontratazioa

236 kontratu erregistratu ziren Usurbilen apirilean. Haietatik 174 hitzartu ziren aldi baterako.



ZER DIYO?



ERNAI USURBIL

Buru osasunaren inguruko hausnarketa

Osasun mentalaren auziari erantzuteko, psikologo zein psikiatruk eskaini ditzaketen tratamendu ezberdinak baldintza duinetan jasotzeko eskubidea izateaz gain, ondoez psikikoaren jatorria ulertu eta kontsultara iritsi aurretik erantzun bat ematearen beharraz ohartu behar dugu. Proiektu honen bidez, ondoeza eragiten diguten egungo egiturazko baldintzak aldatzeko ez dugu zuzeneko ahalmenik, baina bai ordea gazteon ondoezaren arrazoiatarara begiratzeko, seinalatzeak eta konponbideak jarri ditzaketenei erantzukizunak exijitzeko, gazteon ondoeza kolektibizatu eta politizatuz. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dugu egiturazkoak diren bizi/lan baldintzak aztertu eta hauek zehaztapenez seinalatzea.

Paradigma aldaketa honekin, aurten Ernai Usurbildik norabide berriaren oinarriak sozializatuko ditugu, kontzientzia pizteko asmoz. Gainera, indar ezberdinei lerrokatzea exijituko diegu eta egiturazko baldintza hauek gure herrian nola itzultzen diren identifikatu eta mahaigaineratuko ditugu.

Ondoezak politizatzekeo prozesuari dagokionez, beharrezkotzat jo dugu ondoezak lantzeko espazio seguru eta intimoak sortzea. Pertsonala politikoa dela babestu nahi du proiektuak, eta horretarako auzi pertsonala behar bezala landu eta garatzeko ezinbesteko baliabideak eskaintzea lehenesten dugu.



"Indibidualizazioak zuzenki ahultzen ditu harremanak, sareak edota komunitateak". ARGAZKIA: NIK SHULIAHIN.

Testuingurua eraldatu eta baliatzearen garrantzia eta eraginkortasuna nabarmendu du taldeak. Hausnarketa, lanketa eta zaintza pertsonala ez badira komunitatera eramaten eta bertatik landu eta sostengatzen, egiten den lanketa hori indibidualizazioaren beste manifestu batean bilakatu daiteke. Norbanakoa ezin da ulertu bere ingurua gabe, horregatik norberaren ezinegonak ezin daitezke testuingurutik kanpo ulertu. Testuinguruaren irakurketa honek, prebentziozko marko batean kokatzera eramaten gaitu.

"NORBANAKOA EZIN DA ULERTU BERE INGURUA GABE, HORREGATIK NORBERAREN EZINEGONAK EZIN DAITEZKE TESTUINGURUTIK KANPO ULERTU"

Prebentzioaz hitz egiten dugunean gazteon heriotz arrazoiaren artean lehena den suizidioari erreparatu behar dio. Aipatutako indibidualizazioak zuzenki ahultzen ditu harreman, sare edota komunitateak, honela komunitatearen integrazio falta eman ohi delarik. Honek gure ondoeza sostengatzeko helduleku garrantzitsuenetako batetik urruntzen gaitu. Honen adibide dira gure herrian bertan ikusten ari garen hainbat joera: kirol taldeen parte hartzea gimnasio erabilerarekin ordezkatzea, gazteen militantzaren eta orokorrean zaletasun partekatuen beherakada.

Gizonezkoen kasuan, suizidio tasa altuek genero sozializazioarekin duten harreman ere mahaigaineratu nahiko genuke. Genero sozializazioaren araberakoa da sufrimendua bizitzeko dugun modua. Gizonak beste batzuen menpe ez egoteko sozializatu dira, ezin dute hauskortasun hori sentitu, ezta espero zuten arrakasta izango ez dutela sentitu.

Osasun mentalaz geroz eta gehiago hitz egiten ari garen garai hauetan, gure ondoezaz hitz egiterako garaian hiztegi medikua txertatu dugu gure egunerokoan. Osasun mentalaren terminologiaren normalizazioak eta erabilerak, norberaren ondoezaren jatorria begiratzeko borondatea mugatzen du, ondoez oro patologizatuz.

Azkenik, gozamenaren eta sufrimenduaren dikotomia ere azpimarratu nahiko genuke. Gaur egun, aurreko belarndiek baino aisialdirako denbora gehiago dugu, baina gozamenerako zailtasunak geroz eta handiagoak dira. Haurrek ez dakite objekturik edota kanpo estimulurik gabe jolasten eta gazteon gozamen gaitasuna geroz eta estereotipatu eta itzaliagoa aurkitzen da. Orokorrean ez gaude gure izatearekin konektatuta, horrek barne beharrak eta desirak ez entzutera eta beraz ez artatzeri garrantzia. Ez dakigu ez sufrimendurekin ezta gozamenarekin konektatuta bizitzen.

Pasa den urtean hasiera eman genion proiektuari bide berri bat ematera geroz aurrerago. Usurbilgo gazteek osasun mentalaren inguruan duten ikuspuntuaren analisisa burutu genuen eta honekin batera intereseko ildo ezberdinak zerrendatu genituen, harremanen inguruko laneketa gauzatu genuelarik saio baten bitartez. Proiektuaren bigarren fase honetan, sexualitatea jorratu dugu, honetarako beharrezkoa ikusi dugularik saio ez mistoen presentzia.

ZER DIYO: NOAUA aldizkariak herriko norbanakoei zein eragileei propio eskaturiko iritzien tartea da.

GUTUNAK: Herritarrek, elkarteek eta erakundeek eskura duten tresna da. Kasu honetan, karaktereak gehienez ere: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, beheka 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus



Uxue Fernandez Gipuzkoa Bertsotan ekimeneko bigarren itzulirako sailkatu da.

"Sari bat iruditzen zait, bertsolaritza bizi dudan tokitik bizitzea"

Txikitatik datorkio bertsotarako zaletasuna etxetik. Lehen aldiz bertso-eskola batean hitza hartu ahal izateko zain zen eta ordutik, zaletasunari bide ematen ari da. Urteetako lanketak ekarri du 2003an estreinakoz Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan abesteko esperientzia errepikatza.

Udazkenean jokatu den Gipuzkoako Bertso Txapelketan sailkatzeko abian den Gipuzkoa Bertsotan ekimenean ari da parte hartzen Uxue Fernandez Lasa herrikidea. Ekainaren 2an Hernanin izango duen bigarren itzulirako sailkatu da, sortzez urretxuarra. Etxetik datorkion bertso-zaletasunaz aritu gara lerrootan. Izan ere, bertsolaritza bidelagun izan du betidanik.

Gipuzkoako Bertso Txapelketara itzulera da zurea, ezta?

2023ko azaroan erabaki nuen 2024ko Gipuzkoa Bertsotan ekimenean parte hartzea. Ez dut Gipuzkoako Bertso Txapelketan parte hartu 2003an kantatu nuenetik. Testuingu-

rua asko aldatu da, edade bikoitza dut. Oraingoan, Gipuzkoa Bertsotan ekimeneko lehen saioa oso ona egokitu zitzaigun giroz ere. Bigarren itzulian gara. Oso-oso pozik nago hau dena bizitzeaz. Ni hemen banago, horretan jende asko eragin duelako da; lehenbizi, etxekoek. Anaia zaharrago bat dut, alde zaurretik bost aldiz

"SORPRESA EFECTUA NAIZ IA 40 URTEREKIN, EZ BAINAUTE BERTSOTAN ENTZUN"

eta orain ere parte hartzen ari dena. Jendeak pentsatzen du jendaurreko horretan ez bazaude ez zaudela, baina uste dut bertsogintzan egoteko oso modu ezberdinak daudela; horietako bat da bertso-eskolako bertsolari izatea, ez duena beharrik plaza horretara joateko. Nik hala egin dut; txapelketari dagokionez, lau

"NEURTU EZIN DEN ZERBAIT NEURTZEN DA. OSO SANOA DA HORI PENTSATUTA JOATEA KANTATZERAKOAN"

edizio pasa ditut parte hartu gabe. Orain, sorpresa efektua naiz 40 urte betetzear ditudanean, ez bainaute bertsotan entzun. Orduan, entzun ez zaituzten horretan pentsatzen dute ez duzula bertsotan egiten.

Zertan aldatu da estreinakoz parte hartu zenuen aldi hura egungoarekin?

Orduko testuinguruko gauza batzuk ez zitzaizkidan asko gustatu, jarrera batzuk, entzundako gauza batzuk. Ez dakit testuingurua zenbateraino aldatu den, baina niri inporta zaidana da, bertsolaritza nondik, nola eta zeinekin bizi dudan, hori baita aldatu dena. Hernaniko bertso-eskolan nabil astero, ahalduntze bertso eskolan hileroko. Zaharrenak ni eta kide bat gara. Jendeak hor deskubritzen zaitu, bitxia da. Ikuspegi feministatik gu ahalduntzeko eta aldi berean gaiei beste buelta batzuk eman edo beste gogoeta gune bat sortzeko aukera ematen dizun gune bat da. Hiru gai-jartzaile daude bertsolarion zerbitzura, gaiak mimo izugarri jarriak. Hori normalean ez da plazako egoera batean gertatuko, ez bada horietako bat gai-jartzaile jardungo dena.

Plazako egoera batean halakorik ez gertatzeak zer esan nahi du?

Gizartea bezala, bertsolaritza bera ere feminista bere neurrian dela. Gizartean dugun islada da. Halere, lan handia egiten ari da Bertsozale Elkartea eta poliki-poliki aldatzen doa. Egun, oholtza gainera igoko zara jakinda oholtzakeren bat ere zure konplizea dela, helduleku bat badela badakizu. 2003an ez nuen hala bizi, askoz gutxiago ginen.

Eremu zehatz batzuetan agertzeko, txapelketetan parte hartu beharra dago?

Txapelketak helburu ezberdinak ditu; saretzea gure artean, biziberritzea. Baina morboa

→ dakar; kirol emaitzak ateratzen diren moduan, txapelketako emaitzak ateratzen dira eta hor uste dut askotan galtzen duela iparra. Neurtu ezin den zer bait neurtzen da. Uste dut oso sanoa dela hori pentsatuta joatea kantatzera zoazenean. Neure helburua ez da udazkeneko txapelketarako sailkatzea. Sari bat iruditzen zait bertso larritza bizi dudan lekutik bizitzea. Maider Arregi eta Oihana Arana dira ni nagoen unean egotearen "errudunak" eta txapelketan izen-ematera bultzatu nautenen artean daude. Gabiriko saioan edo bertso eskolan Maiderrekin abesteko aukera izateak ez du preziorik. Kontraste horretan hain zuzen, bertso-eskoletan parte hartzea polita da.

2003ko esperientzia aldarazten ari da egungoa?

Duela 20 urteko bizipenak lagungarriak dira. Aho-zapore hurra kendu nuen Gabiriako saioarekin eta bigarren saioan ea gozatzen dugun. Gauza handienetako bat lortu nuena zen saio hartan egotea, gorputzaldi ona sentitzea, nahiz eta urduritasuna handia izan. Gainera, jasotako feedback-a ere oso ona izan zen. Gorputzaldi hori lortzen badut bigarren saioan, seinale ona izango da. Aldi berean, lanean finkatzeko oposaketa bat egin berria naiz. Nire indar gehiena hor zegoen, halako batean finko bihurtu naiz. Horrek erlatibizatzen laguntzen du dena. Taldean jarduteak ere asko laguntzen du. Urretxu, Hernani eta Usurbilgo bertso-eskoletan nabil eta taldea dagoela sentitzen dut. Inguru horretan aritu ahal izatea hitzarekin jolastea gustuko izanda, ordainezina da.

Bertsolaritza eta zu lagun zaharrek zarete ezta?

Etxean oso giro bertsozalea zegoen. 11 urte bete arte ezin nuen izena eman bertso eskolan eta zain egon nintzen. Izan ere, 9 urterekin jada be-



Uxue Fernandez, Gipuzkoa Bertsotan-eko saioa jokatuko den Sutegi atarian.

lodromora joaten nintzen etxekoekin bertso txapelketako finala ikustera. Asko-asko gustatu izan zait bertso larritza, betidanik izan naiz bertsozalea. Betidanik izan dira bertsozaleak etxean.

Ordutik, aldatu zaizkizu erreferenteak?

Gure bertso-eskolako kide eta oso bertsolari ona Nerea Elustondo da. Erreferenteei dagokienean, oholtzako proportzioa pixka bat aldatu da, baina uste baino gutxiago. Gipuzkoa Bertsotan-en, 74k kantatuko dugu eta 21 gara emakumezkoak, ez gara %30era iristen.

Erreferenteak baino lehen ikusitakoak, orain lagun edo kide ditugu.

"GORPUTZALDI ONA LORTZEN BADUT BIGARREN SAIOAN, HORI SEINALE ONA IZANGO DA"

Emakumeen parte hartzea nola-koa den argitzeko oinarrira jo behar da?

Bertso-eskoletan normalki neskak gehiago izaten dira mutilak baino. Gerora ordea, mutilek errazago egiten dute aurrera neskek baino. Hori Bertsozale Elkarteak aztertua eta ondorioztatua du. Bertso-tan oholtzaratzen zaren unetik zure gorputza jartzen duzu hor. Oso zaurgarria zara. Jende askok irakurriko du Uxue kantatzen ariko balitz bezala eta ez Uxuek sortu duen pertsonaia. Hori 40 urterekin errazago kudeatzen da, bizitakoak errazago erlatibizatzen laguntzen du. 19 urterekin abesten zuen Uxuek oraingoarekin zerikusi gutxi du. Genero arrakala badago eta

"OHOLTZARATZEN ZAREN ETIK GORPUTZA JARTZEN DUZU. OSO ZAURGARRIA ZARA"

ahalduntze bertso-eskola ere hortik sortu zen, behar hori ikusita.

Bertso-eskolak aipatuta, txikitatik aritu zara guneotan. Zer jaso duzu eta egun zer ari zara ematen?

Guri etxetik etorri zaigun transmisio kate horretan beste katebegi bat izan da. Saretzeko, harreman oso onak egiteko aukera ematen du, hizkuntza transmisiorako eta hizkuntzarekin jolasteko aukera bat eta, aldi berean, besteengandik edan eta zuk ere ahal duzun heinean ematekoa. Gero, bakoitzak bere lanketak egiten ditu. Bertsozale gisa izugarri gozatzen dut entzuten. Izugarria da jendeak nola egiten duen bertsoan. Zorteduna sentitzen naiz.

Datorrena datorrela, bertsolaritzarekin segi nahi duzu harremantzen.

Segi eta segi, modu horretan aritu naiz lanketan bizitzea osoan, izan arlo batean edo bestean. Inñuri lan horretan egindakoaren emaitza orain hasi naiz jasotzen. Sailkapen fase honetan gertatzen dela gertatuta ere, ez dut uste nire agenda asko aldatuko denik eta ez nuke nahi.

Gipuzkoa Bertsotan

Bigarren itzuliko saioetako bat igande honetan, Usurbilen jokatuko da:

Hitzordua: maiatzak 26, 17:00, Sutegi.

Parte hartzaileak: B multzoko Aitor Tatieggi Loidi, June Aiestaran Iparragirre, Maider Arregi Markuleta, Odei Lopez Larrauri, Oier Aizpurua Olai-zola eta Uxue Alkorta Iturbe. **Gai-jartzailea:** Ion Zaldua Brit. **Sarrerak:** bertsoarrak.eus atarian (7 eurotan sarrera arruntak, 5 eurotan 6-18 urte artekoentzako eta Bertsozale Elkarteak bazkideentzako sarrerak).

Informazio gehiago: bertsozale.eus atarian.

San Ixidroko ospakizunetan jendetza batu zen

Alkartasuna kooperatibak antolatutako jaialdian, Joxe Ramon Sarasola eta Euxebio Txapartegi omendu zituzten.

Baserritarren egun handia asteazkenarekin egokitu zen, baina igande itxura hartu zuen Usurbilgo frontoiak. Izan ere, pilotalekua bete zen San Ixidro eguna ospatzeko.

Alkartasuna kooperatibak antolatutako jaialdiaren bueltan bildutakoek hamaiketako oparoaz gozatzeko aukera izan zuten.

Trikitilariak eta bertsolariak

Manex Torrealdai eta Kattalin Zubizarreta trikitilariek giro ederra jarri zuten. Ane Labaka

eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek punta atera zioten baserritarren egun handiari.

Giro ezegonkorra tarteko, Dema plazan egin asmo zuten herri kirol jaialdia frontoian egitea hobetsi zuten. Udarregi ikastolakoak ere bisitan izan ziren eta adi-adi jarraitu zituzten harri jasotzaileen eta aizkolarien erakustaldiak.

Omenaldia

Une hunkigarriena omenaldiarena izan zen. Aurkezpen gutxi behar duten bi herrikide



Joxe Ramon Sarasolaren alaba eta Euxebio Txapartegi, sariak jaso berritan.

omendu nahi zituzten: Joxe Ramon Sarasola eta Euxebio Txapartegi.

Egun ezin aproposagoan helarazi nahi izan zizkieten eskerrak, jaso zituzten oroigarriek adierazi moduan, "nekararitza eta herri kirolak bultzatzeagatik". Bi alor hauetan sustatzaile sutsuak izan baitira biak ala biak, garai bateko

Bordatxoko eta Kale Nagusiko Txapartegi harategiko buruak. Euxebio omenaldi ekitaldian bertan izan zen, Joxe Ramonek ez zuen bertan egoterik izan. Jose Ignacio Saizar "Lusar-be"-ren eskutik jaso zuen Euxebiok oroigarria eta Alkartasuna Kooperatibako ordezkari Antonio Eizagireren eskutik Joxe Ramonen alaba Izarok.



Alkartasuna kooperatibak antolatu zuen San Ixidro eguneko jaialdia.



Manex Torrealdai eta Kattalin Zubizarreta trikitilariek girotu zuten jaialdia.



Gorka Etxeberria eta Garazi Ansa aritu ziren harria jasotzen.



Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak.



Hurrengo ikasturteko eskaintza zabala izango da. ZUMARTE MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolan matrikulatzeko garaia

Zumarte Musika Eskolak 2024-2025 ikasturterako matrikulazioa zabalduko du datorren astelehenean. Maiatzaren 31ra arte eman daiteke izena. Internetez egin daiteke, zumarte.eus web orrialdean, edota Musika Eskolako bulegoan bestela.

Datorren ikasturteko matrikulazioa orain egin behar da. Bi aukera daude. Internetez egin daiteke, zumarte.eus web orrialdean topatuko dituzue xehe-tasunak, edota Zumarteren bulegoan (Kale Nagusia, 43). Kasuhonetan, eskuz bete behar da matrikulazioari dagokion inprimakia.

Modu presentzialean egin nahi duenak bi egun hauek ditu aukeran: asteartea edota osteguna. Bi kasuetan, hauxe izango da matrikulaziorako ahalbidetuko den ordutegia: Goizez, 10:00etatik 12:30era. Arratsaldez, 18:00etatik 19:00ak bitartean.

Musika eskaintza

Musika txokoa, musika mintzaira, tronpeta, tronboia, sa-

xofoia, biolina, perkusioa, klarineta, eskusoinua, trikiti-xa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, kantu modernoa, abesbatza eta talde instrumentalak.

Matrikulen prezioa

Datorren ikasturtean, matrikula eta kuoten prezioak mantendu egingo direla jakinarazi du Zumartek.

Ikasgaiak:

- Musika Txokoa (4-5-6-7 urte): 147 euro.
- Musika Txokoa+instrumentua: 294 euro.
- Musika Mintzaira: 147 euro.
- Instrumentua: 147 euro (Panderoa: 85 euro.)**
- Musika Mintzaira+instrumentua: 294 euro.

Musika Mintzaira edo instrumentua egiten ez duten ikasleak:

- Abesbatza bakarrik: 85 euro.
- Talde instrumentala bakarrik: 85 euro.
- Abesbatza+taldea edo 2 talde: 115 euro.

** Hor zehaztutako kopuruaz gain, instrumentuko ikasleek ikasturtean zehar 32 euroko 10 kuota ordaindu beharko dituzte eta talde instrumentala bakarrik egiten dutenak 6 eurotako 10 kuota.

"DATORREN IKASTURTEAN, MARIKULA ZEIN KUOTEN PREZIOAK BERE HORRETAN MANTENDUKO DIRA"

Hobariak

- Familia ugarietan, matrikularen prezioan %40ko deskontua egingo zaio matrikulatuta dagoen ikasle gazteenari. Horretarako, familia ugariaren txartela aurkeztu beharko da.
- Unitate familiar bereko 3 senide edo gehiago matrikulatuta dauden kasuetan, matrikularen prezioan %40ko deskontua egingo zaio ikasle gazteenari. Ikasle gazteenak bixkiak izanez gero, ikasle bati bakarrik egingo zaio deskontua.

Ordainketa

Plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren, matrikulazioan adierazitako kontu korrontetik, "ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikulazioreratik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko zaizue ekaina bukaeran, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendu hasieran". Zumartek aditzera eman duenez, plaza banaketaren arautegia aplikatuko da.

Ordutegiak

Instrumentuen kasuan, ikasle eta irakaslearekin behin-behineko ordutegiak bilera bidez adostuko dira.

Musika Txokoa, Musika Mintzaira, Kantu Kantari eta Abesbatzak taldeen ordutegiak aldiz, dagoeneko zehaztuta daude zumarte.eus web orrialdean.

Zumarteko instrumentuak baliatzeko aukera

Instrumentua ikasten hasten direnen artean, tronboia, saxofoia, tronpeta, flauta, klarineta edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero eta ikasleentzat egokiak badira (tamaina eta abar), Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko zaizkie.



Erraustegia ixteko maiatzaren 18an eginiko martxaren amaierako argazkia, Zubietako plantaren atarian.

Erraustegia ixteko martxa, atariraino

Zubietako erraustegia geratu eta ixteko eskaera planta atariraino eramán zuten maiatzaren 18an, Errausketaren Aurkako Mugimenduak antolatu eta Lasartetik abiatutako oinezko martxa baten bidez. Oso kezagarritzat jo zituzten ToxicoWatch egunotan aurkeztekoak den datuak.

"Itxi ezazue behingoz, alferrikako erraustegi zikin, arrisku-tsu eta garesti hau!" galdegin zuten erraustegiaren atarian. Errausketaren Aurkako Mugimenduak plazaraturiko adierazpenean gogorarazi zuten, "erraustegi honen egia ezkutuak pixkanaka ari dira ateratzen argitara". Horietako bat, "Gipuzkoako zaborturismo handia" eragiten duela eta "desastrehonen arrastoak ari dira azaltzen". Adibide moduan aipatu zituzten Arkaitzerreka erre duten lixibiatu likidoak, 330 kilometrorako kokaturiko Valladolideko Santovenia de Pisuergara helarazitako "errauts toxiko pila", "eraikin publiko eta azpiegiturretan" baliaturiko Añorga edota Lemoako zementu fabriketara bidalitako eskoria edota Nafarroako Artaxoara

"modu ilegalean" eramandako 5,5 tona hondakin. "Geroztik, Bizkaira bidaltzen hasiak omen dira", adierazi zuten Donostia Bizirik, Eguzki eta Ekologistak Martxan eragileek babesturiko oinezko martxaren deitzaileek. Horrez gain, "erraustegiaren beste zabortegi handia atmosfera da". Bertatik isurtzen dituzte "milaka tona CO2 eta bestelako negutegi gasak". Horregatik, ondorioztatu zuten, "erraustegia izango da larrialdi klimatikoa sortzen duten gas hauen igorle nagusia Gipuzkoan". Atmosferara soilik ez, "erraustegiak inguruan sakanatzen ditu oso-oso kutsakorrek diren dioxinak, furanoak, metal astunak eta PFAS edo kutsatzaile eternoak". Testuinguru hau deskribatuta, argi zioten Errausketaren

Aurkako Mugimendutik; "geu bihurtu gaituzte Gipuzkoako hondakinen azken zabortegia".

ToxicoWatch-ekoen azterlanaren aurkezpenak

Hori hala dela erakusten dutela diote, erraustegia piztu aurretik 2019an eta ordutik urtero, ToxicoWatch Herbeheretako fundazioak, Errausketaren Aurkako Mugimenduaren eskariz eta hainbat udal eta herritarren lagun-

"EMAITZAK OSO-OSO KEZKATZEKOAK DIRELA" OHARTARAZI DU TOXICOWATCH-EK

tzarekin azken bost urteotan eginiko azterlaneko datuek. "Emaitzak oso-oso kezkatze-koak direla", ohartarazi dio ToxicoWatch-ek aipatu herri mugimenduari; "hemen inguruko lurzoruan, uretan, goroldioetan, landareetan eta oiloen arrautzetan nabari direla, dioxina, PCB, metal astun, eta PFAS kutsatzaileen igoera".

Egunotan emango dituzte ezagutzera emaitzak azterlan horren ikerlariek; maiatzaren 23an 18:00etan Hernaniko Sandiusterrin eta hilaren 27an 18:00etan Usurbilgo Sutegin. "Denok gaude gonbidatuta informazio horiek entzun, irakurri eta eztabaidatzera", adierazi dute antolatzaileek. Emaitzak, gainera, online bidez ere zabaltzekoak dira. Gipuzkoako Batzar Nagusietan EHBilduk eta Elkarrekin Gipuzkoak ToxicoWatcheko kideen agerraldia eskatu zuten maiatzaren 9ko Jasangarritasun Batzordean. Talde guztiek aho bateko babesa eman zioten eskari horri. Horregatik, hilaren 27an 9:30etan aurkeztuko dituzte aipatu ikerlanaren emaitzak, Batzar Nagusietako Jasangarritasun Batzordean. Agerraldia zuzenean ikusi ahalko da, bngipuzkoa.eus ataritik.

20 urteko borroka

Hogeitau urte betetzera heldu da hondakinen errausketaren aurkako eta alternatiba jasangarriago eta merkeagoen aldeko borroka. Bi hamarkada hauen ibilbidea kartelen bidez oroitarazi duen erakusketa plazaratu zuten Errausketaren Aurkako Mugimenduak maiatzaren 18ko oinezko martxa hasi aurretik. Tartean, mugarrizandako hainbat gertakari gogora ekarri zituzten kartelok: moratoria eta erreferendum eskaerak egin zirenekoak, 2013an eraikitze lanak geratzea lortu zeneko Usurbilgo jaialdia egin zenekoa, erraustegira egindako hainbat martxa... Herri gehiagotan ikusgai jarri asmo dituzte.



Erraustegia ixtea eskatzeko martxa, Zubietako plantaren atarian.




Errausketaren aurkako banderolak eskuartearen egin zuten martxako ibilbidea.



"Naturklima" dioen kartel pareko sarbidea da Zubietako erraustegiarena.



Erraustegiaren aurkako 20 urteotako borroka kartelen bidez erakutsi zuten.



ORAIN
ERREPUBLICAK
EUSKAL HERRIA · BAKEA · ANTIFAXISMOA

**Herri argazkia
Palestinaren
aldeko
murala osatuz**

Maiatzak 25 Larunbata
ARANERREKAKO PARKEAN
18:30

ehbildu

Jendetza inoiz baino goizagotik, erreleboaren urtean

Ateri eutsi zion eta plaza bete jende ibili zen erreleboa gauzatu den 41. Sagardo Eguneko lehen unetik.

Eguraldi aurreikuspena eta bisitariena ere guztiz gainditu zuen Sagardo Eguna bizi izan zuen herri honek iragan igandean. Euriaren mehatxupearan esnatu arren, ateri eutsi zion azkenean eta plaza goraino bete zen. Edozein ikuspuntutatik jendetza ikusten zen nonahi. Aipatzekoa jaialdia hasterako nabari zen herriki-deen eta baita bisitarien mugimendua ere. 41. edizio honi Miriam Arrillaga Belokik eta Aitor Aranguren Errasti pilotariak eman zioten hasiera. Edizioen kopuru adina postu, 41 egokitu zituzten antolatzaiei-

leek eta goizean goizetik launtzera joandakoek.

Giro ezinhobean joan zen goiza. Arrakastaren lekuko, edalontziak agortu zirela, baita bertako ekoizle eta sagardotegien nahiz herritik kanpokoien sagardoa ere hainbat postuetan.

Lekuko aldaketa

Sagardoari bultzada emateko pintxo jan ederra egiteko aukera izan zen Askatasuna plazan. Jaialdia datorren ikasturterako matrikulazio epea irekitzear duen Zumarteko panderojole eta trikitilariak



41. Sagardo Egunak bildu zuen jendetzaren irudietako bat.

girotu zuten. Handik hurbil, Ernaik egokitutako karpagunean talogileak jo eta su aritu ziren lanean. Kontzertu arra-

tsaldearekin segi zuten gero festa giroan.

Talogile taldearentzat bezala, errelebo urtea izan da honako hau Sagardo Egunaren Lagunak taldekoentzat ere. Izan ere, talde berria arduraturako da 2025. urtetik aurrerako edizioak prestatzear. Aurtengoa hamarkada batetik gora antolaketa lanetan jardun dutenen eta bilgunera batutakoen arteko lankidetzatik bideratu da.

EGURALDI AURREIKUSPENA ETA BISITARIENA ERE GUZTIZ GAINDITU ZUEN



41 sagardo postu izan zituen 41. Sagardo Egunak.



Zerbitzatzen soilik ez, ekoizpen lanetan ere jardun zuten zenbait herrikideek.



Sagardo Eguneko antolatzaileek eta boluntarioek ateratako argazki jendetsua.



Plaza jendez bete zuen, ateri eutsi zion 41. Sagardo Egunak.



Miriam Arrillaga Belokik eta Aitor Aranguren Errastik eman zioten hasiera.



Talogileak jo eta su lanean goizetik Ernaik egokitutako karpagunean.



Giro ezin ederragoan aritu ziren herrikideak sagardoa zerbitzatzten.



Txiskeroak taldeko gazteek kontzertu jendetsua eskaini zuten karpagunean.



Zumarteko panderojole eta trikitilariak girotu zuten sagardoaren festa.



Sagardo Eguneko irudi gehiago noaua.eus atarian ikus ditzakezue.



Dj Jotatxo gualdeko izarra izan zen Ernairen karpagunean.



Indarkeria matxistik gabeko gunea Sutegi aurrean egon zen.

Maddi Aburruza nagusitu zen botatzaile lehiaketan

Sagardo Egunean lanean ari ziren botatzaile guztien artean lau hautatu zituzten lehiaketarako.

Sagardo Egunak ez du pizgarri berezirik behar. Basoa eskuratu orduko, bisitariak zir-kuitu majo bati ekiten diote. Bada zer edan, zer jan eta zer ikusi. Botatzaileen lehiaketak eten ohi du sagardozaleen martxa, bereziki frontoian batuta daudenena. Aurtengoan ere ikusgarria izan da.

Irekiera ekitaldiaren ondoren, Sagardo Eguneako antolatzaileak postuz postu aritzen dira, botatzaile txukunen bila. Aurten, hiru beharrea lau izan ziren lehiaketara deituak izan ziren zerbitzariak: Maddi Aburruza, Luken Arkarazo, Irati Gabellanes eta Julen Lertxundi.



Aurtengoan lau izan dira botatzaile onenaren lehiaketan aritu direnak.

Epaimahaiaren erabakia

Egin beharreko lana hauxe zen: botila ireki eta baso bat zerbitzatu. Epaimahaiaren esanetan, Maddi Aburruza

izan zen trebeena. Lukenek eramane zuten bigarren saria. Hirugarren saria Iratirentzat izan zen eta, laugarrena, Julenentzat.



Txapela Maddirentzat izan zen.



Luken Arkarazo bigarren izan zen.



Irati Gabellanes, hirugarren.



Julen Lertxundi, laugarren.



**GIPUZKOA
BERTSOTAN**
24

2. FASEA

USURBIL

Maiatzak 26, igandea, 17:00 
Sutegi Aretoa 

Antolatzailea:



Babesleak:



Laguntzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Berria
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

LABORAL
kutxa

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus



Belaunaldi ezberdinetako herrikideak, garai bateko jolasetan.

Garai bateko jolasetan

Belaunaldiarteko topaketa berezian parte hartu zuten Zirimarako gaztetxoek maiatzaren 16an. Helduen eskutik, garai bateko jolasak ekarri zituzten dinamikaren erdigunera. Gogoan izan, ikasturte berrirako izen emateko epea maiatzaren 24an itxiko dute.



Organojoleari begira eta musika klasikoko pieza gorenak entzuten herritarrek.

Thomas Ospitalen organo kontzertua

Thomas Ospital organojoleak Johann Sebastian Bach musikari handiari eskainitako kontzertua eman zuen ostiral arratsaldean Salvatore Elizan. "Johann Sebastian Bach" Organo-rako Zikloaren barnean eskainitako bost kontzertuetako bat izan zen Usurbilgoa.



Familia giroan basoan orientatzen ikasten etxeko txikiak gurasoek lagunduta.

Familien orientazioa neurtu dute

Familiak orientazioa lantzen aritu ziren larunbat arratsaldean Txokoaldeko baso inguruan zehar. Euriak ere harrapatu zituen ariketaren erdian, baina 12 balizak aurkitzen jarraitu zuten txikiak gurasoen laguntzarekin. Talde lan ederra osatu zuten etxeko guztiek indarrak batuta.



Bidean aurkitutako sendabelarrak aztertu eta identifikatzen hainbat lagun.

Sendabelarrak ezagutzen Txokoalden

Leire Lazkanoren gidaritzapean, sendabelarrak identifikatzen eta biltzen ikasi zuten larunbat goizean dozena bat lagunek Txokoalden eta inguruetan. Kalean eta gure basoetan maiz hazten diren belarrak zeintzuk diren, nola izena duten eta zertarako balio duten ikasteko aukera izan dute herritarrek.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK ·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Urte hasieratik KPI-aren igoera ez zaie aplikatu eta mobilizazioetan dira Matiako langileak.

Matiako langileak mobilizazioetan, KPI-aren igoera eske

Urtarriletik bizitzen ari eta onartezintzat jotzen duten egoera hau salatu eta plazaratzeko mobilizatzen ari dira egunotan.

Zaintzailea zaintzea, finean horixe ari dira eskatzen azken aldian, Matiako langileak. Ildo horretan kokatu behar da egunotan aipatu fundazioak ku-

deaturiko Kalezarko zaintzadun etxebizitzetan auzunean egin duten mobilizazioaren pankartako galdera: "Hau al da zuen zaintza eredua?". Lotsa-

garrizat eta kontraesarkotzat jotzen dute, Matiaren ondarea eta jarduera nabarmen hazten ari den honetan, galdegiten zaien inplikazio, ardura eta lan-zamaren truke, oinarritzotzat jotzen duten haien eskaerari bide ez ematea. Izan ere, urte hasieratik KPI-aren igoera ez zaie aplikatu. Hitzarmena negoziatzen ari diren honetan, Matiako erabiltzaileei eta haien senideen tarifetan aplikatu zaien igoera horrek langileen soldatetan islada izatea galdegiten ari dira. Gu-txienez jotzen duten es-

kaera hau, argi utzi dute "ez da negoziagarria gure aldetik", NOAUA'ri adierazi diotenez.

LAB, ELA, UGT eta SAE sindikatuen deialdia

Urtarriletik bizitzen ari eta onartezintzat jotzen duten egoera hau salatu eta plazaratzeko mobilizatzen ari dira egunotan zentro arteko langileen batzordean ordezkaritza duten LAB, ELA, UGT eta SAE sindikatuek deituta. "Tristeki kalera ateratzea tokatzen zaigu", adierazi diote NOAUA'ri aipatu sindikatuotako ordezkariek. Salatu dutenez, "orain KPI-aren igoera ez aplikatzea posible da, duela gutxi, Covid garaian, pertsonak zaintzeagatik heroiak ginenean". Ez dute uste erraza izango denik haien eskaera betetzea, baina "haien esku dago. Guk ez dugu negoziatziorako atea itxita".

Bitartean, egoerahonek 1.500 langileei (ia %90 emakumeak) egunerokoan bete-betean eragiten dietela gogorarazi dute. Oinarritzko zerbitzua eskaintzen dute, pertsonen zaintza. Horregatik, "eskaten duguna da, dagokigun moduan erantzutea da". Langileok bizi duten egoera, sektoreak bizi duenaren parekoa dela adierazi diote hedabide honi.

N634 errepidea zeharkatzeko behin-behineko zubi berri bat

Tren geltoki berriaren eraikuntza lanak tarteko, zubi berria eraikiko dute Etxealdian. Aurretik, ordea, egungoa eraitsi beharra dago.

Berria erabiltzeko moduan izan artean, maiatzaren 27tik aurrera eta hamar bat hilabetez, N634 errepidea gainetik zeharkatuko duen behin-behineko zubi berri bat eraikitzen ari da egunotan Euskal Trenbide Sarea Txaramunto inguruan. "Hasiera batean, behin-behineko zubia pasabide zaharraren ondoan egi-

teko asmoa bazuen ere, metro batzuk mugitzea erabaki du: Txaramunto kaletik abiatuko den pasabidearekin lotuko ditu N634 errepidearen bi aldeak", Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

Zubiak errepidea eta trenbidea gaindituko ditu

Etxealdiako zubi berriak, "N634 errepidea ez ezik trenbidea ere gaindituko du, eta, beraz, gaur egungo puntu beltza desagerraraziko da horri esker". Aldaketa hauen



Txaramunto kaletik abiatuko den pasabidearekin lotuko dira bi aldeak.

guztien berri emateko hainbat seinale jartzekoak dira egu-

notan, "baita langile bat ere, batik bat, hasierako egunetan".

Udaberriko bigarren hauteskunde kanpaina

Europako parlamenturako hauteskunde kanpaina ostiral honetan abiatuko da. Bi asteko epea izango dute eragile politikoei herritarren botoa eskatzeko.

Prestaketa lanak abian dira. Batetik, posta bidez botoa ematea eskatzeko epea maiatzaren 30ean itxiko da; Correoseko bulegoan edo correos.es bidez bidera dezaketzue eskaera. Eskabidea egin ahala, maiatzaren 20tik aurrera beharrezko dokumentazioa jaso bezain laster, ekainaren 6ra arte eman ahaliko duzue modalitate honetako botoa.



Ekainaren 9an izango da bozketa eguna.

33 hautagai-zerrenda

Gainerakoan, maiatzaren 14ko ezohiko osoko bilkuran egin zuten ekainaren 9an hauteslekuetan lan egitea egokitu zaien herrikideak hautatzeko zozketa. Egunotan helaraztekoak ziren jakinarazpenak udaltzainen bidez.

Azkenik, 39 izan ziren ekainaren 9ko Europako hauteskundeetara aurkezturiko hautagai-zerrendak. 33 onartu eta aldarrikatu ditu azkenean, Hauteskunde Batzorde Zentralak. Gogoan izan, hauteskunde barruti bakarra egongo da deialdi honetan, estatu mailakoa; hau da, boto eskubidea izango duten herritarrek hautagai-zerrenda berdinak aukeratu ahaliko dituzte estatu osoan. Desberdintasunik egongo da halere; hautagai-zerrenda berak autonomia erkidegoetan zerren-

da eta izen berezituekin aurkeztu ahaliko dira eta. Hori da hain zuzen, Euskal Herriko bi eragile politikoren kasua. EHBildu "Orain Errepublikak" koalizioan aurkeztuko da hauteskundeetara, ERC, BNG eta Ara Més-ekin. EAJ "Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioa" ren izenpean Coalición Canaria, Geroa Bai edota El Pi-Proposta per les Illes Balears-rekin. Gainerakoan, PSOE, PP, Sumar eta Podemosek zerrenda bakarra aurkeztu dute estatu osorako.

Informazio gehiago, jada martxan dagoen <https://info.eleccioneseuropas2024.es/eu/> atari digitalean jaso dezakezue.

Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko epea ostiral honetan itxiko da

Ostiralean itxiko dute, maiatzaren 24an, Lanbide Heziketa osoan 2024-25 ikasturterako aurrematrikulatzeko epealdia.

- Orduetgia: 8:30-17:00 (asteleheneetik ostegunera), 8:30-14:30 (ostiraletan).
- Web orria: lhusurbil.eus

Usurbilgo Lanbide Eskola

Zubietako Lanbide Eskolan bost familia profesionaletako erdi- eta goi-mailako zikloak eskaintzen dituzte: Administrazioa, Elektrizitate-Elektronika, Energia eta Ura, Fabrikazio Mekanikoa, eta Instalazioak eta Mantentzea. Informazio gehiago:

- Helbidea: Ertate bidea, 9
- Telefono zenbakia: 943364600

Oinarrizko Lanbide Heziketa

Atallun kokaturiko Oinarrizko Lanbide Heziketan, bi espezialitate eskaintzen dituzte: ile-apainketa eta estetika zein sukaldaritzaren eta jatetxe titulua eskuratzeko ikasketak. Informazio gehiago:

- Helbidea: Atallu. Zanpiura, 3
- Telefono zenbakia: 943360465
- Posta helbidea: lhi@usurbil.eus

Asteburu honetan ur sistema ezagutzeko bisita gidatuak

Aste hasieratik, %40tik %62ra igarotako herriko ur hornidurak aurrerantzean izango duen hedadura Usurbilen. Ia Xakko osoan Andatzatik datorren ura edateko aukera dute, Udalak eginiko inbertsioei esker. Herriko ur sistema hurbiletik ezagutzeko bi bisita gidatu antolatu ditu Usurbilgo Udalak astebururako; ostiralerako, maiatzak 24 (17:00-19:00 artean) eta larunbate-

rako, hilak 25, (10:00-12:00 artean). "Bisitak Erroizpen hasi eta San Esteban I deposituan (parke azpikoan) amaituko dira. Udaleko ordezkari politiko zein teknikoek emanngo dituzte azalpenak. Txokoargiko aparkalekuan elkar-tu eta Erroizpera elkarrekin igoko dira parte-hartzaileak". Hitzordurako gonbidapenak usurbil.eus atarian eskura daitezke.

Sareren mobilizazioa

Bost ostiral dituen maiatzak, Sareren hurrengo mobilizazioa hilaren 31n izango da, arratsaldeko 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan, euskal pre-soen eskubideen alde.

Akatsak zuzentzen

Aurreko aldizkarian, Usurbilgo ur sistemari buruzko artikuluan Erroizpeko presa Orbeldi gisa izendatu genuen, Erroizpekoari buruz ari ginen. Barka eragozpenak.

Otar-Goxo
Elkargaitak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA



Denboraldi berrian Ondarroako arraun kuadrillako gidari nagusia izango da beste behin ere.

"Arrauna uzteko asmoa daukat, entrenatzaile lanetan bakarrik aritzeko"

IÑAKI ERRASTI ARRAUNLARIA ETA ENTRENATZAILEA

Arraunaz zerbait dakienak ondo baino hobeto jakingo du nor den Iñaki Errasti. Azken urteetan, Ondarroako entrenatzaile eta arraunlari lanetan dabil aginagarra. NOAUA!rekin izan da kirolaria bere esperientziak partekatzen.

Zu elite mailan zabilta, entrenatzaile gisa Ondarroan. Arraunlari ere bazara talde berean. Arraunlari izatetik entrenatzaile izatera alde handia al dago?

Orain arte arraunlari eta azken zortzi edo bederatzita urtetan bi lanak egin ditut batera. Egunerokotasuna berdina da, baina buruhauste gehiago ditut bietan arituta, nerbio gehiago eta materiala prestatu behar. Dena antolatu beharra dago eta hamaikakoak prestatu behar ditut. Kontuan hartu behar 25 bat mutil ditudala neure kargu. Lehen, entrenamenduak amaituta etxera joan eta ahaztu egiten nintzen, orain, ordea, buruan daukat dena uneoro. Nekaga-

rriagoa da bai fisikoki, bai mentalki ere. Batez ere, gauzak hain ondo ez doazen momentu horietan. Bi lanetan bat aukeratu beharko banu, entrenatzaile bakarrik izatea gustatuko litzaidake, hori bakarrik probatzen. Momentu txarretan sufritu egin behar egoera horretan ere.

Parrandarako tarte gutxi izango dute arraunlariek. Entrenatzaile lana bakarrik egin behar duzunean tarte gehiago ematen dizu festaz gozatu ahal izateko?

Kirola txapelketa garaian ez da parrandarekin oso bateragarria izaten, baina urtean eta momentu batzuetan ondo etortzen

da burua beste leku batera eramateko. Neguan aprobetxatzen dugu igandetan arraunetik deskonektatzeko, baina udan batera ez.

Arraunean urte asko daramatzazu. Hain kirol gogorra izanik, zer

"DENA EZ DA IRABAZTEA. TALDE BATZUEKIN 5. EDO 6. POSTUAN SAILKATZEA IKARAGARRIA DA"

eta zenbat jateari ere erreparatu beharko zaio.

Zaindu beharra dago, dudarik gabe. Asteazken zehar sei entrenamendu izaten ditugu eta asteburuetan uretara joaten gara. Medikuek jartzen digu jan beharrekoa nolabaiteko orientazioa izateko. Behin Gabonak pasata, medikuek jarraitako plana jarraitzen hasten gara. Hala ere, badaude batzuk pisurik hartzen ez dutenak berez eta janariarekin arazorik ez dutenak. Beste batzuek, berriz, asko gehiago erreparatu behar izaten diote horri pisu egokia izateko. Neguan lasaigo ibiltzen gara, baina gero behar bezala jarraitu beharra dago dieta.

Bandera ugari eskuratu dituzu, arraunlari eta entrenatzaile zara. Zer geratzen zaizu egiteko?

Helburua entrenatzaile izanda lehen postu horietan ibiltzea da. Bandera batzuk irabazi ditut Ondarrurekin, baina garai-pen garrantzitsuetan gustatuko litzaidake punta-puntan aritzea. Jendeak irabazleari begiratzen dio, baina segun eta zein taldekin bosgarren edo seigarren sailkatzea ere ikaragarria izaten da. Orain, arrauna uzteko asmoa daukat eta entrenatzaile lanetan bakarrik aritzea, hori geratzen zait egiteko.

Arraun proba guztiak ez dira berdinak. Zein da gustukoena duzuna?

Kontxa da arraunlari guztion ametsa. Batzuek Kontxa irabazteko ilusioa izaten dute, eta beste batzuek denboraldi hasieran helburu sailkapena jartzen dute. Liga irabaztea ere oso baliotsua izaten da, eta geroz eta garrantzia gehiago ematen zaio horri. Hala ere, nik Kontxa dut denetan gustukoena.

Uda partean, jaien bueltan, aritzen zarete. Ondo daramazu? Gaztetan baino hobeto bai behintzat?

Naturaltasunez daramagula esango nuke. Jende gehienak oporrak izaten dituen aritzen gara gu txapelketan, hori du

→ arraunak. Ilusioz dabilenak eta burua kirolean duenak ez du gehiago behar. Lagun asko uda iritsi zain egoten dira parrandarako, eta arraunlariok ere udaren zain egoten gara, baina txapelketari ekiteko. Urte osoa entrenatzen aritzen gara horretarako, eta ilusioz hartuta ez diet inolako inbidiarik parrandan dabiltzan lagunei. Arraunean jubenil mailatik aurrera ez daude arraunlari gehiegi ere, eta hori ere zerbaitengatik izango da. Gauza asko alde batera utzi beharra daude: parrandak, bidaiak, lagunarteko zenbait momentu... denboraldia beste data batzuetan izango balitz, pentsatzen dut jende gehiago animatuko litzatekeela.

Arrauna oso maskulinoa izan da urtetan. Badirudi gauzak aldatzen ari direla, ezta? Zein inpresio hartu duzu zuk?

Geroz eta emakume gehiago daude, hori argi dago. Hala ere, nik uste hasieran inpaktu handia izan zuela, baina azkenaldian ez dut sentitzen gorantzako joera hori. Mantendu egiten dela esango nuke, hori bai. Jubenil maila pasatzean, ikasketek denbora eskatzen dute eta arraunak sakrifizioa. Gizonen kasuan ere, maila horretatik aurrera jende gutxi dago, eta nesken kasuan ere berdin gertatzen da.

Zure ibilbidean, zer nolako garrantzia izan dute entrenatzaileek? Horregatik hartu zenuen zuk ere entrenatzaile izateko erabakia? Entrenatzaile batzuekin urte dezente pasatu ditut, beste batzuekin gutxiago eta harremanak ere halakoak izaten dira. Entrenatzaile naizenetik uste dut neure arraunlariekin harreman ona izan dudala beti, eta horretan saiatzen naiz. Nik entrenatzaile batzuek asko ikasi nuen, eta espero dut beste batzuek ere nirekin gauza bera sentitzea. Garaipen handiak lortzean arraunlariak eskerrak eman izan dizkidate eta hori oso



"la kasualitatez hasi nintzen entrenatzaile lanetan duela bederatzi urte, eta zazpi osatu ditut Ondarroan".

polita eta eskertzekoa da. Oso garrantzitsua da konfidantza eta harreman hori lanean emaitzak lortzeko ere.

Arraunean gutxi izango dira profesionalak. Zure kasuan, horretatik bizi zara?

Oso-oso zaila da arraunetik bizitzea. Nik zorrea izan dut eta zortzi urtez egon naiz arraunetik bizitzen beste lanik egiteko beharrik gabe. Arrauneko, ordea, ez da bizitza osorako lana eta beste lan bat izatea ere beharrezkoa da arrauna amaitzean nora jo izateko. Orain, bi lanetatik bizi naiz, eta arrauna horren gutxi izanda zoragarria da

**"GAUR EGUN OSO
ARRAUNLARI GUTXI
DAUDE
ARRAUNETIK
BAKARRIK BIZI
DIRENAK"**

horretatik bizibidea ateratzeko aukera. Hala ere, oso arraunlari eta entrenatzaile gutxi daude arraunetik bakarrik bizi direnak. Momentuko gauza da, baina amaitzean lanean hasi beharra dago berehala.

Eta etorkizunean, urte luzez entrenatzaile lanetan jarraitzeko asmoa duzu?

Ez dago jakiterik. Ia kasualitatez hasi nintzen entrenatzaile lanetan duela bederatzi urte, eta zazpi daramatzat Ondarrun. Ez dakit datorren urtean Ondarruk nirekin kontaktuko duen, nire ibilbidea hortxe amaituko den edo beste ate batzuk irekiko ote zaizkidan. Hogeita bost urte daramatzat arraunean murgilduta, eta egia da momenturen batean udako oportunitatez gozatzeko aukera izatea ere gustatuko litzaidakela. Urte sabbatikoren bat izango banu ere ez nintzateke kexatuko. Aurrera begira, ordea, gustatuko litzaidake entrenatzaile lanean jarraitzea.



Iñaki Errasti.

Laburrean

Zenbaki bat:
4.

Kolore bat:
Urdina.

Miresten duzun kirolari bat edo entrenatzaile bat:
Michael Jordan.

Estropada bat hautatu ezazu:
Kontxako Bandera.

Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:
20.000 especies de abejas (Zuzendaria: Estibaliz Urresola).

Liburu bat aholkatuko diguzu?
Alex Txikonon *Mundu bat motxilan* (Sua argitaletxea).

Zein da zure abestirik gogokoena?
Mikel Laboarenak.

Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?
Facebook.

Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.
Aginagako erribera.

Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

Oporretarako toki bat.
Kanariar uharteak.



Usurbilgo Lanbide Eskolako ostalaritza espazio berria.



Dena prest espazio berria erabiltzen hasteko.

Jatetxe Arloko Zerbitzuen Zuzendaritza zikloa abiarazi dute Lanbide Eskolan

Usurbilgo Lanbide Eskolako ostalaritza familia profesionalean eskaintza publikoaren alde egin du 2023-24 ikasturtean, lehen aldiz Gipuzkoan familia honetako goi mailako ziklo publiko bat eskainita.

Orain arte Ostalaritzako erdi eta goi mailako zikloetan eskaintza publikorik ez zegoen Gipuzkoan. Honi erantzunez, aurten martxan jarri dute "Jatetxe Arloko Zerbitzuen Zuzendaritza" zikloa eta lehen

mailako ikasleak enpresa egonaldiak egiten ari dira Narru Jatetxea eta Hotel Catalonia Donostian, adibidez.

Eskolan ostalaritza espazio berria estreinatzen hasi dira. Maiatzean eta ekainean Lan-

bideren bidez hainbat ikastaro eskainiko dituzte, hala nola, ardo dastaketa eta uztartzea, arrozen sukaldia... Maiatzaren 6tik 24ra Lanbide Heziketako Ziklorako aurrematrikula zabalik izango dute.

Usurbilgo Emakumeen Topaketa

Kalezarko Pelaienean egotza duen Usurbilgo Emakumeon Etxean hainbat ekintza iragarri dituzte egunotarako:

Maiatzak 25, larunbata

- 10:00 Usurbilgo Emakumeon Topaketa Kalezarko Pelaieneako Usurbilgo Emakumeon Etxean.
- Zehaztasunak: "elkar eza-gutu eta konfiantzazko giroa sortzeko talde dinamika bat egingo dute lehenengo". Zehaztu dutenez, "saio parte hartzailea izatea nahiko ge-

nuke, denon iritzi, nahiak eta desioak plazaratzeko aukera emango diguna, elkar ezagutzan sakontzearekin batera".

- Amaieran, Beatriz Egizabal umoregilearen saioa eta lun-txa izango dira.

Maiatzak 27, astelehena

- 17:00-19:00 Sexu-aholkularitza zerbitzua Kalezarko Pelaieneako Usurbilgo Emakumeon Etxean.
- Oharra: Bi astean behin eskaintzen dute zerbitzu hau, astelehenetan. Datozen zer-

bitzu egunak: maiatzak 27, ekainak 10 eta 24.

- Hitzordua eskatzeko: 650 232 714 943 377 112 info@xelebreak.com

Maiatzak 28, asteartea

- 18:30 Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren "Etxe bat norberarena" liburu aurkezpena Kalezarko Pelaieneako Usurbilgo Emakumeon Etxean.

Ekainak 5, asteazkena

- 15:00-18:00 Aholkularitza juridikoa eta psikosoziala Kalezarko Pelaieneako

Usurbilgo Emakumeon Etxean.

- Oharra: Zerbitzua noiz eskaintzen den: hilabetean behin asteazkenetan. Datozen zerbitzu egunak; maiatzak 22, ekainak 5, uztailak 10 (15:00-18:00 artean).

Informazio gehiago eta izen-ematea:

Helbidea: Belmonte kalea, 8 Telefono zenbakia: 943 377 112

Posta elektronikoa: emakumeonetxea@usurbil.eus

Antolatzailea:

Usurbilgo Emakumeon Etxea.

**NOAUA TXIBI S.L**
KRISTALDEGIA
• komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

MERKATU TXIKIA

EREBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Usurbilgo Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude. Garrantzitsua esperientzia izatea. Deitu 670654272 edota bertatik pasa.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai, berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

Julen Lejardi eskubaloi kanpusean izena emateko epea maiatzaren 28an itxiko da

Usurbil KE eskubaloi taldeak antolatu du Julen Lejardi kanpusa. Oiardo kiroldegian egingo da ekainaren 24, 25, 26, eta 27an. Dena den, izen-ematea maiatzaren 28an amaituko da. Ondoko formularioa bete behar da: <https://labur.eus/YM4Yr>

Kanpusean ariketa eta jolas desberdinak egingo dira, baina baita beste zenbait jardue-

ra ere. Goizeko 09:30etik 12:30era, Oiardon, eta hamaitakoa eta ura ekartzea eskatuko zaie izena ematen dutenei. Kanpusa LH3, LH4 LH5, LH6, DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzendua da. "Ekintza batzuk, adin guztiak elkarturik egingo ditugu eta beste batzuk sakanaturik", aditzera eman dutenez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 23	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 24	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 25	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 26	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 27	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteartea, 28	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 29	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 30	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 31	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 02	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Eskubaloia

Maiatzak 24 ostirala

20:00 Senior neskek:

-Urbil Usurbil KE

-Urnietan

Maiatzak 25 larunbata

10:00 Infantil mutilak:

-Usurbil KE A

-Bera Bera

10:45 Infantil mutilak:

-Usurbil KE A

-Amenabar A

Pilota

Usurbilgo Pilota Txapelketako partidak:

Maiatzak 24 ostirala, 18:30 :

Seniorrak (Final 1/4):

Murgiondo-Lazkoz

Olaetxea- Azpiroz

Etxezarreta-Aranguren

Elola-Balardi

Maiatzak 25 larunbata, 18:00:

Kadeteak:

Pagazpe 1 - Zazpi Iturri

Tolosa - Behar zana

Seniorrak (Final 1/4):

Astiz-Villanueva

Barbajero-Santeseteban

Maiatzak 26, igandea, 11:30:

Kadeteak:

Pagazpe 2 - Oiarpe

Seniorrak (Final 1/4):

Txoperena- Urruzola

Igoa-Irazustabarrena

HILDAKOAK



Pedro

Muñoz Muñoz

Maiatzaren 15ean

hil zen, 87 urterekin

Zorion-agurrak

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Etor zaitze gure bulegora bestela, edo telefonoz deitu: 943 360 321.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 24

ZUBIETA UdaberriFest

17:00 Serigrafia. Kamisetak edo serigrafiatu nahi dena eraman.

18:00 Tortilla lehiaketa. 21:00 "Zubieta talent".

18:30 Zubietako plazan.

USURBIL "Vachoca" tailer artistikoa

Etxea gaitzat harturik, tailer artistiko bat bideratuko da modu praktiko batean.

17:30-19:00 Potxoenean.

LARUNBATA 25

USURBIL Kantu-jira

Herritar orok parte har dezake.

19:00 Mikel Laboa plazan.

IGANDEA 26

USURBIL 'Gipuzkoa Bertsotan' sailkapen faseko saioa

Sarrerak: bertsosarrerak.eus atarian eskuragarri.

17:00 Sutegin.

ASTELEHENA 27

USURBIL Erraustegiak eragindako kutsaduraren azterlanaren aurkezpena

Toxico Watch fundazioko ordezkari

Abel Arkenbout eta Kirsten

Boumanen eskutik.

17:00 Sutegin.



Mattin Aiestaran Aranzadiko kideak hitzaldia eskainiko du ostegun honetan Sutegin.

Aitzagaren 30. urtemuga

Maiatzak 22-ekainak 1

"Aitzaga Kultur Elkartea 30 urtez hegaldian" erakusketa Sutegin. Orduetgia:

- Astearmetik larunbatera: 18:00-21:00.
- Larunbatetan: 11:00-14:00.

Maiatzak 23, osteguna

• 18:30 Irulegiko eskuari buruzko hitzaldia Sutegiko auditorioan.

• Hizlaria: Mattin Aiestaran, Aranzadiko kidea.

Ekainak 1, larunbata

- 13:00 Ekitaldia.
 - 13:30-14:00 Fanfarrikant.
 - 14:00 Herri-bazkaria Aska-tasuna plazan.
 - 18:00 Fanfarrikant Brass Band.
 - 19:30 Irekiera Dj Jotatxorekin.
 - 20:00-23:00 Bokatak afaltze-ko aukera izango da.
 - 22:00 Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotatxo.
 - 06:00 Gunearen itxiera.
- Sarrerak: usurbilkultura.eus plataforman eta Aitzagan.

UdaberriFest Zubietan

Maiatzak 22, asteazkena

- 18:00 Dantzak.
- 18:30 Txokolatada.

Maiatzak 23, osteguna

- 16:45 Kidam Magoaren ikus-kizuna.
- 18:00 Apar-festa.

Maiatzak 24, ostirala

- 17:00 Serigrafia. Serigrafiatu nahi dena eraman.
 - 18:00 Tortilla lehiaketa.
 - 21:00 "Zubieta talent".
- Antolatzaileak: Zubietako Herri Eskola, Zubietako Herri Batzarra, Usurbilgo Udala.

Toxic Watchen agerraldia

Erraustegiak eragindako kutsaduraren azterlanaren aurkezpena egingo dute maiatzaren 27an astelehena, arratsaldeko 18:00etan, Sutegin.

Sutegi udal liburutegiko deialdiak

Maiatzak 29, asteazkena

- 18:30 'Memoria berriak' idazketa-tailerra Sutegin, Yolanda Arrietarekin. Izen-ematea aurrez udal liburutegian.

Ekainak 4, asteartea

• 19:00 Javier Cercasen 'El Movil' liburuari buruzko gaztelarazko solasaldia Ana Merinorekin Sutegin. Aleak liburutegian eskuragarri.

Ekainak 7, ostirala

- 'Denok superhero!' sormen tailerra Sutegin, Zorione Mendez-en eskutik, 8-10 urteko haurrentzat. Izena aurrez eman behar da liburutegian.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza
DIABETESA, HIPERTENSIOA,
GIZENTASUNA, ELIKADURA
ETA KOLESTEROL ARAZOAK
688 843 696
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

943 361 182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Elexpe
deapaindegia


- BETILEEN TINTAKETA
- BETILEEN PERMANENTEA
- ESTETIKA
- TATUAIK
- ZUTIKAKO ETA
- ETZANDAKO SOLARIUM-A



MUNA LURRA 12. USURBIL - 943 370 462

ARATZ

zabaleta anaiak
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



•eguneko menua • karta • pintxoak • bokatak • plater konbinatuak
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

Egurrezko ontzietan
ondutako sagardoan
Euskal Herriko 6. Txapelketa

EGURREZKO SAGARDOA

2024-06-09
USURBIL

Aginagako Eliza Zaharrean

Ekarri zure sagardoa eta parte hartu

TXAPELKETERA AURKEZTEN DENAK DASTAKETAN PARTE HARTU BEHARKO DU

SARIAK

Egurrezko Sagardoa

1. 1.000 euro "Herriko Etxea Saria"
2. 450 euro
3. 100 euro

SAGARDOGILE BAKOITZAK 8 SAGARDO BOTILA EKARRIKO
DITU, DENAK KALITATE BEREKOAK.

BOTILAK MAIATZAK 31ko 19:00AK BAINO LEHENAGO
USURBILGO ALKARTASUNA BASERRITARREN
KOOPERATIBAREN EGOITZAN ENTREGATUKO DIRA



**SARIA JASOTZEKO UNEAN ESKURATZEN DUEN SAGARDOGILEA BERTAN IZANGO DA, BESTELA HURRENGOARI
EMANGO ZAIO**

*info+: sagardoa@ni.eus

Antolatzaileak



630938027

Laguntzaileak

www.alkartasuna.eus

